



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

# 2026KO EKINTZA PLANA

---

## LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

### **Osoko bilkura:**

Ainara Herce San Martín, kontseiluburua

Tontxu Rodríguez Esquerdo, kontseilukidea

Jorge Aranguren Fernández, kontseilukidea

Noemi Angulo Garzaro, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideez osatuta, 2026ko urtarrilaren 29an eginiko bileran, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2026ko Ekintza Plana onartu du.



## AURKIBIDEA

<b>I. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
Lehiaren Euskal Agintaritza .....	3
LEAko lehendakaria .....	3
Lehiaren Euskal Kontseilua .....	3
Ikerketako zuzendaria .....	4
Plan Estrategikoa 2024-2028 .....	4
2026ko Ekintza Plana .....	4
<b>II. 2026KO JARDUKETAK.....</b>	<b>5</b>
1. HELBURUA – Lehia sustatzea .....	5
<b>1.1. JARDUKETA.</b> Lehentasunezko sektoreei buruzko azterketak, ikerlanak eta txosten orokorrak egitea .....	5
<b>1.2. JARDUKETA.</b> Sektore publikoaren jarduketari buruzko txostenak egitea.....	5
<b>1.3. JARDUKETA.</b> Laguntza publikoei buruzko txostenak egitea.....	5
<b>1.4. JARDUKETA.</b> Sektore publiko eta pribaturako gida praktikakoak egitea.....	6
<b>1.5. JARDUKETA.</b> Zabalkunde-jarduerak programatzea .....	6
<b>1.6. JARDUKETA.</b> Lankidetzta unibertsitateekin .....	6
<b>1.7. JARDUKETA.</b> Arauen jarraipena egitea, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek landutako araudia aurreikusi eta egokitzeko.....	6
<b>1.8. JARDUKETA.</b> Lehiaren aurkako arauak aurkaratzeko tresna erabiltzea interes orokorraren mesedetan .....	6
<b>1.9. JARDUKETA.</b> LEAren kontsulta-eginkizuna .....	7
<b>1.10. JARDUKETA.</b> Laguntzen deialdiak.....	7
2. HELBURUA – Jarduera instituzionala eta gardentasuna .....	7
2.1. JARDUKETA. Harreman instituzionalak bultzatzea.....	7
2.2. JARDUKETA. Lankidetzta eta koordinazioa Lehia Agintaritzen Sarean .....	8
2.3. JARDUKETA. Foro espezializatuetan parte hartzea .....	8
2.4. JARDUKETA. Aurrera egitea gardentasunean eta irisgarritasunean .....	8
3. HELBURUA – Lehia defendatzea .....	8
3.1. JARDUKETA. Administrazio-prozedura zehatzaileak bultzatzea .....	9
3.2. JARDUKETA. Bitarteko propioak indartzea lehiaren aurkako praktikak antzemateko .....	9
3.3. JARDUKETA. Errukitasun-programa sustatzea .....	9
4. HELBURUA – Bikaintasun operatiboa lortzea.....	9
4.1. JARDUKETA. AA tresnen erabilera integratzea LEAren kudeaketa-prozesuetan.....	10
4.2. JARDUKETA. Ezagutzaren transmisioa .....	10
4.3. JARDUKETA. LEAko langileen prestakuntza.....	10
4.4. JARDUKETA. Bikaintasuna egiaztatzea kudeaketan .....	10
<b>III. AURREKONTUA.....</b>	<b>11</b>
<b>IV. AGINTE-TAULA.....</b>	<b>12</b>
Aginte-aula .....	12
Planaren jarraipena egiteko dinamika .....	12
Planaren jarraipena egiteko proposatutako adierazleak .....	12
<b>ERANSKINA. AURREKONTU XEHAKATUA .....</b>	<b>14</b>



## I. SARRERA

### Lehiaren Euskal Agintaritza

- (1) Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) izaera administratiboko organismo autonomoa da, eta Eusko Jaurlaritzan politika ekonomikoaren eta lehiaren defentsaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago.
- (2) Nortasun juridiko propioa du, bai eta jarduteko gaitasuna ere, bere eginkizunak betetzeko objektibotasunez, ordenamendu juridikoaren mende eta administrazio publikoekiko eta agente ekonomikoekiko inongo loturarik gabe, hartara bere helburuak lortu asmoz [[1/2012 Legea, otsailaren 2koa](#) (LEAL)].
- (3) Behar-beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan lehiaren kultura finkatzea, ez soilik kontsumitzaile eta erabiltzaileei nahiz merkatuari berari ematen dizkien onurengatik, baizik eta LEAren jarduketek legitimitatea izan dezaten.

Hau da, euskal gizarteak ulertu dezan zein diren LEAren balioak eta zein onura dakartzan bere jarduketak. Hartara, bere jarduketetan efizientzia handituko da, eta nabarmen lagunduko da ekonomia solidoago eta jasangarriago bat lortzen.

### LEAko lehendakaria

- (4) Lehiaren Euskal Kontseiluko (LEK) burua da, LEA zuzendu eta ordezkatzeko du, LEAren organoak gidatu eta koordinatzen ditu, LEK-en bilerak deitzen ditu eta haien burua da —gai-zerrenda zehaztu eta gaiak banatzen ditu—, gastuak eta ordainketak baimendu eta agintzen ditu, LEAren jarduketaren kontuak ematen ditu, eta hitzarmenak sinatzen ditu.
- (5) Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoan lehia-politika lideratzen du, eta, horretarako, LEAren barne-funtzionamendua ziurtatzen du, eta zaintzen du bete egiten dela lehia askea babesteko araudia.

### Lehiaren Euskal Kontseilua

- (6) Kide anitzeko organo honek erabakiak hartzen ditu lehiaren ebazpen-, kontsulta-, sustapen- eta defentsa-eginkizunetan.
- (7) LEKeko kideek erabakiak hartzen parte hartzen dute, LEK-en bileretara joan eta eztabaidetan parte hartzen dute, proposamenak idazten dituzte eta ekintzak bultzatzen dituzte EAEko merkatuetan lehia bideragarria sustatzeko.
- (8) LEKeko Idazkaritzak zuzenbideko aholkuak eman, eta gaien legezotasunari buruzko txostenak egiten ditu, zerbitzu komunak eta laguntza-zerbitzuak emanez LEAko gainerako organoei. Halaber, aurrekontu-proiektua egiten du, LEAri aholkularitza juridikoa ematen dio, kudeaketa ekonomikoa egiten du, eta LEAren Erregistro Orokorra kudeatzen du, besteak beste.



## Ikerketako zuzendaria

- (9) Ikerketa-jardueren plangintza, egikaritza eta koordinazioa lideratzen ditu, taldeak gidatzen ditu, proiektuak eta jardueren kontrola gainbegiratzen ditu eta helburuak lortzen ote diren ebaluatzen du.

## Plan Estrategikoa 2024-2028

- (10) LEALren 10. artikulua adierazten du Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizuna izango dela onartzea urteko programa, bai eta bere helburuak eta lehentasunak definitzen dituzten urteko eta bi urtez behingo jarduketa-planak ere.
- (11) 2024ko urtarrilaren 24an, [2024-2028 aldirako Plan Estrategikoa](#) onartu zen. Bertan, LEAren ikuspegia eta xedea eguneratu ziren, eta aldi horretarako 4 helburu eta 17 lerro estrategiko hedatu ziren.
- (12) EAEko lehia-politikak jarraitu egin behar du merkatuetan lehia bideragarria bermatzeko beharrezkoak diren mekanismo guztiak indartzen, EAEko kontsumitzaileei onurak eman dakizkien eta haiek aukera izan dezaten produktu guztiak eskuratzeko, baldintza beretan.
- (13) Lehia defendatzea beste politika batzuen lagungarri denez —garapen ekonomikoan laguntzen duten politikak—, LEAren jarduketak ekarpen handia egiten die hazkunde ekonomikoari eta enpleguari.

## 2026ko Ekintza Plana

- (14) Deskribatutako esparruan, agiri honek 2026ko ekitaldirako ekintza-plana jasotzen du. Plan horrek bat egiten du plan estrategikoarekin eta koherentzia du LEArako onartutako aurrekontuarekin —[Euskal Autonomia Erkidegoko 2026rako aurrekontu orokorretan](#) onartutakoa—.
- (15) Nahiz eta jarduketa batzuk zehaztuta dauden (gidak, azterketak edo jardunaldiak, esaterako), beste kasu batzuetan kanpoko agenteek egindako eskari edo ekintzen arabera gauzatuko dira jarduketa horiek (administrazio publikoek araugintzako txostena eskatzean, kontsultak jasotzean eta abar). Horrenbestez, LEAtik kanpoko inguruabarrek baldintzatuko dute jarduketak benetan egiten diren; hala ere, kontuan hartuta pilatu den esperientzia, gutxi gorabeherako kuantifikazio bat ezarri da.

Era berean, ekitaldian zehar, LEKi egokia iruditu dakioke plan honetan jasotakoak baino jarduketa gehiago egitea.

- (16) LEAren baliabideak urriak dira, eta 2026ko ekintza-plan honetan planteatutako helburuak benetan handizaleak, aurrera egiten baitute kudeaketaren autonomian eta giza kapitala baita beren aktibo nagusia.



## II. 2026KO JARDUKETAK

### 1. HELBURUA – Lehia sustatzea

- (17) Jakinik lehiaren kultura ez dagoela aski hedatuta gure gizartean eta merkatuetan, LEAk indartu egin nahi ditu bere sustapen-eginkizunak (*competition advocacy*), baliatuz mekanismo ez-zehatzaileak eta agente preskriptoreekiko lankidetzak.
- (18) LEAk zeregin berezia dauka ekonomian, bermatu egiten baitu merkatuek pertsonen nahiz enpresen mesedetan funtzionatzen dutela. Merkatuek funtzionamendu egokia badute, enpresak beren artean lehiatu daitezke, eta, gainera, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek ez dute kalterik jasotzen lehiaren kontrako praktiken ondorioz.
- (19) Sustapen-lan horren helburu diren merkatuak eta eremuak asko direnez, merkatuak hobetu ezagutu behar dira, arau-zaintza hobea izan behar da, eta kontsulta-organoaren jarduketa indartu behar da, sustapen-ekintza eta -kanalak proaktiboki aktibatzeaz gain.
- (20) Bestalde, unibertsitateek eta goi-mailako heziketa-zentroek posizio pribilegiatua dute lehiaren kultura egiazkoa eraikitzeko, epe ertain eta luzera. Horretarako, prestakuntza eman beharko diete ez soilik etorkizunean LEAren jarduera-arloetan arituko dien profesionalei, baizik eta baita enpresariei eta kontsumitzaileei ere.
- (21) LEAk jarraitu egingo du lan akademikoa eta dibulgatzailea babesten, eta, horretarako, klaseak, konferentziak, mintegiak eta ikastaroak emango ditu.
- (22) Helburu hori **10 jarduketatan** hedatzen da. Hurrengo orrietan deskribatuko ditugu jarduketaren zehaztasunak.

#### 1.1. JARDUKETA. Lehentasunezko sektoreei buruzko azterketak, ikerlanak eta txosten orokorrak egitea

- Azterketa bat egitea turismorako etxebizitzetxei, haien erregulazioari eta lehiari buruz.
- Txosten bat egitea lehiari eta EAEko hondakin ez-arriskutsuen zabortegiei buruz.

#### 1.2. JARDUKETA. Sektore publikoaren jarduketari buruzko txostenak egitea

- Bereziki zaintzea kontuan hartzen direla erregulazio ekonomiko onaren printzipioak: premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza.
- Txostenak igortzea hiri-antolamenduko planei eta udal-ordenantzei buruz, besteak beste.
- Jarraitzea *Udalerrriak eta lehia* proiektuan lankidetzan.

#### 1.3. JARDUKETA. Laguntza publikoei buruzko txostenak egitea

- Urteko txostena egitea EAEko laguntza publikoei buruz —2026an, seigarrena izango da—. Horren helburua da laguntza hobeto ezagutzen bere arau-esparrua, azterketa estatistiko bat egitea emandako laguntzei buruz eta datuak alderatzea Espainia eta estatu kideetakoekin.



- Kontsulta-organoa izatea eta txostenak igortzea laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarriari buruz; horretarako, egokiak diren gomendioak igorri beharko dira zaindu daitezzen lehia-neutraltasunaren eta erregulazio ekonomiko onaren printzipioak.

#### 1.4. JARDUKETA. Sektore publiko eta pribaturako gida praktikoak egitea

- Dokumentu hau egitea: *Kontratazioari eta lehiari buruzko gida*. Bertan sartu beharko da zein alderdi hartu behar dituzten kontuan erosketa publikoan inplikaturako agenteek kontratuak izapidetu eta egikaritzean: kontratazioaren fase guztietan izan behar da kontuan lehia askea zaintzen dela.
- Dokumentu hau egitea: *Irabazi-asmorik gabeko entitateei espazio publikoa okupatzeko baimena emateari buruzko gida*.

#### 1.5. JARDUKETA. Zabalkunde-jarduerak programatzea

- Lehiari buruzko jardunaldi bat egitea.
- Jarraitzea lehia askea sustatzen kontratazio publikoaren eremuan; horretarako, gaiaren gaineko prestakuntza ematea foru-aldundiei eta udalei.
- Bultzatzea judizialki erreklamatzeko direla administrazio publikoei egindako kalteak lehiaren kontrako jokabideen ondorioz.
- Lehiari buruzko hitzaldiak ematea ikastetxeetan.

#### 1.6. JARDUKETA. Lankidetzaren unibertsitateekin

- Lankidetzaren lerroak izatea EHUekin eta Deustuko Unibertsitatearekin, horrek aukera ematen baitu ikastetxe horietako ikasleek prestakuntza-praktikak egin ditzaten LEAn. Aurreikusten da 2026an bi ikasle egingo dituztela praktikak LEAn.
- Lankidetzaren aritza UIK – EHUko Udako Ikastaroen Fundazioarekin.
- Lankidetzaren aritza EHUekin titulu propioa martxan jartzeko (EHUn bertan emango dena): *“Lehiaren zuzenbidearen adituaren diploma”*.

#### 1.7. JARDUKETA. Arauen jarraipena egitea, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek landutako araudia aurreikusi eta egokitzeko

- Modu proaktiboan jardutea arau-xedapenak egitean lehia sustatzeko lanean, erregulazio ekonomiko onaren printzipioetan oinarritutako txostenak igorritik. Jarduera ekonomiko batean sartzeko oztupoak edo aritzeko trabak antzematen badira, haiek kentzeko gomendioak emango dira.

#### 1.8. JARDUKETA. Lehiaren aurkako arauak aurkaratzeko tresna erabiltzea interes orokorraren mesedetan

- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzea administrazio-zuzenbidearen pean dauden egintzak eta lege-mailatik beherako xedapen orokorrak. LEA legitimatuta dago egintzak aurkaratzeko; tresna hori baliatuko du, baldin eta administrazioek entzregor egiten badiete gomendio hauei: araudiaren bidez sartu diren lehiarako oztupoak ezabatzeke ematen direnei.



### 1.9. JARDUKETA. LEAren kontsulta-eginkizuna

- Bere sustapen-lanean jarraitzea, lehia askeari buruz jasotzen duen edozein kontsultari erantzunez. Ildo horretatik, LEAK hainbat kanal ditu kontsulta horiek errazago jasotzeko.

### 1.10. JARDUKETA. Laguntzen deialdiak

- Laguntza hauek deitzea:
  - (1) LEAn prestakuntza jasotzeko bekaren deialdia.
  - (2) Lehiaren gaineko ikasketa amaierako lanaren sariaren deialdia.
  - (3) Lehiaren gaineko *compliance* programa egiteko deialdia.

## 2. HELBURUA – Jarduera instituzionala eta gardentasuna

- (23) Bere *sustapen*-lana era egokian egiteko, LEAK harreman etengabea eta arina izango du bere inguruko agente ekonomiko eta sozialekin: administrazio publikoa, enpresak, unibertsitateak, elkargo profesionalak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak. Horretarako, bilerak izango ditu, lankidetzaren sareetan parte hartuko du, lankidetzaren tresnak sinatuko ditu bere interes-taldeetako entitateekin eta foro, jardunaldi eta kongresuetan parte hartuko du (eskualde-mailan, Estatuan nahiz nazioartean).
- (24) Era berean, lehiaren *defentsaren* eremuan, LEA koordinatuta egongo da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin eta gainerako lehia-agintaritza autonomikoekin.
- (25) Azken urteetan, LEAK indartu egin du gardentasunarekin duen konpromisoa, sistematikoki argitaratuz bai ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa, bai lehiaren gaineko jarduera zehatzari buruzkoa. Era berean, neurriak handitzen jarraituko du, informazio publikoa eskuratzen laguntzeko eta gobernu onaren kultura indartzeko, hartara administrazio irisgarriagoa, arduratsuagoa eta herritarrekiko hurbilagoa bultzatuz.
- (26) Bere komunikazio-planean —nahitaezko elkarrizketa-tresna— adierazten da zein jarduera egiten duen LEAK kontsumitzaileen ongizatearen alde, komunikazio proaktibo eta dinamikoko politika baliatuta.

Gainera, garatzen da zein estrategia duen LEAK komunikabideetan eta sare sozialetan, bai eta txosten, memoria eta plan estrategikoak argitaratzen, informazio-kanpainak abiarazten eta edukiak sortzen ere, komunikazio arina izateko komunikabide espezializatuekin.

Laburbilduz, lortu nahi da LEA entitate segurua, irisgarria, ikusgarria eta hezitzailea izatea.

- (27) Helburu hori **4 jarduketatan** hedatzen da. Hurrengo orrietan deskribatuko ditugu jarduketaren zehaztasunak.

### 2.1. JARDUKETA. Harreman instituzionalak bultzatzea

- Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearekin (EGAB).
- Jarduketak egitea Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuarekin ezarritako lankidetzaren bidearen esparruan, bereziki bakoitzaren xedeen gaineko sinergiak partekatuz.
- Lankidetzaren bideak ezartzea Eusko Jaurlaritzazko sailekin eta foru-aldundiekin, bereziki lehia sustatzeko.



- Lankidetzeta-bide egonkor bat ezartzea kontratazio publikoaren gaineko eskumenak dituzten instituzioekin: Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarekin (KEAO) eta Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearekin (OIReScon), bereziki lehia sustatzeko kontratazio publikoaren kudeaketan.
- Lankidetzeta-bide egonkorra ezartzea Arartekoarekin, bereziki bakoitzaren xedeen gaineko sinergiak partekatzeko.
- Lankidetzeta-bide egonkorra ezartzea [otsailaren 20ko 2/2023 Legearen](#) ondorioz ezarritako informazio-kanalekin [2/2023 Legea, otsailaren 20koa, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautu eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoa (*whistleblowers*)], eta, bereziki, *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistemearekin (BIS)*, bereziki bakoitzaren xedeen gaineko sinergiak partekatzeko.
- Lankidetzeta-bide egonkorra ezartzea EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearekin, bereziki bakoitzaren xedeen gaineko sinergiak partekatzeko.
- Lankidetzeta-bide egonkorra ezartzea UNE – Normalizaziorako Espainiako Elkartearekin, bereziki bakoitzaren xedeen gaineko sinergiak partekatzeko.

## 2.2. JARDUKETA. Lankidetzeta eta koordinazioa Lehia Agintaritzen Sarean

- Parte hartzea Lehia Defendatzeko Kontseiluan, berau baita Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzeta, koordinazio eta informaziorako organoa.
- Parte hartzea Lehia Agintaritzen Sareko lantaldeetan: kontseiluen lantaldean, sustapeneko lantaldean eta instrukzio-organoen lantaldean (urtean zehar aldian-aldian batzen dira).

## 2.3. JARDUKETA. Foro espezializatuetan parte hartzea

- Parte hartzea foro espezifikotan, non LEAri agindutako lanerako interesgarriak diren gaiak jorratzen diren. Gai horiek lehiaren espezifikoak izan daitezke, edo bere eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkoak diren beste gai batzuen gainekoak (Women@Competition izeneko urteko konferentzia, ELGA edo OIReScon foroa).

## 2.4. JARDUKETA. Aurrera egitea gardentasunean eta irisgarritasunean

- LEAren harreman-kanalak ugaritu eta hedatzea, neurriak ezarriz bermatzeko entitatea jende guztiaren esku dagoela ([infocompetencia@euskadi.eus](mailto:infocompetencia@euskadi.eus), egoitza elektronikoa, telefonoa).
- Neurriak hartzea LEAren jarduketaren hedapena areagotzeko eta LEAren hedapen-zerrendetan izena ematea errazteko (web-orria, LinkedIn).
- Parte hartzea hizkuntza argia ezartzen laguntzeko ekimenetan.
- Kontsulta publikoak egitea gizartea LEAren ekimenetan integratu dadin sustatzeko eta pertsona eta entitate interesdunen partaidetza aktiboa ahalbidetzeko.

## 3. HELBURUA – Lehia defendatzea

- (28) Lehia defendatzeko eginkizuna betez, LEAk aukera dauka informazioa eskatzeko, enpresak ikuskatzeko, zuzendariei nahiz enpresei zehapenak jartzeko, eta, are, sektore publikoarekin kontratatzekeo debekuak ezartzeko.



- (29) Gaia arautzen duen administrazio-prozedura zehatzaile berezia ageri da Lehia Defendatzeko [uztailaren 3ko 15/2007 Legean](#) eta [hura garatzen duen erregelamenduan](#).
- (30) Helburu hori **3 jarduketatan** hedatzen da. Hurrengo orrietan deskribatuko ditugu jarduketaren zehaztasunak.

### 3.1. JARDUKETA. Administrazio-prozedura zehatzaileak bultzatzea

- Ikertzea lehia defendatzeko araudiaren kontrakoak izan daitezkeen jokabideak; horretarako, aurretiazko eginbideak edo informazio erreserbatuak egin ahalko dira, baita ikerketak ere inplikaturako enpresen helbideetan, aldez aurretik zehazteko ea betetzen ote diren zehapen-espeditente bat hastea justifikatzen duten inguruabarrak.
- Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditenteak hastea, bere ekimenez, LEKen ekimenez edo salaketari erantzunez, arau-haustearen zantzuak daudela uste duenean.
- Ikerketa Zuzendaritzak instruitzea hasitako espeditenteak.
- LEKek hartzea egokiak diren ebazpenak.
- Zaintzea ebazpenak betetzen direla, eta, arau-hausterik badago, neurri egokiak hartzea.

### 3.2. JARDUKETA. Bitarteko propioak indartzea lehiaren aurkako praktikak antzemateko

- Aginte-panela garatzea, “Kontratazio Publikoa Euskadin” plataformako datu publikoetan oinarrituta, indartzeko kontratazio publikoan balizko kolusio-praktikak goiz antzemateko gaitasunak.
- Jarraitzea lehiaren defentsaren gaineko prestakuntza ematen LEAko arlo informatikoko arduradunari, etorkizunean sortu dadin adimen ekonomikoko unitate bat, EAEko merkatuetan azterketa prospektiboa egin eta operadoreen jokabideak antzemango dituen, espezifikoki kontratazio publikoaren eremuan.

### 3.3. JARDUKETA. Errukitasun-programa sustatzea

- Aktiboki sustatzea errukitasun-ekariak aurkezten direla; horretarako, LEAren [Errukitasun-gida](#) — oiraintsu eguneratutakoa— zabaltzeko ekintzak gauzatzea.

## 4. HELBURUA – Bikaintasun operatiboa lortzea

- (31) LEAk kudeaketa aurreratu era berritzaileko eredu bat garatu nahi du, eguneroko jarduera optimizatzeko eta eskuragai dauden prozesu eta tresnak perfektionatzeko. Era berean, LEAk apustu egiten du profesional-taldearen ezagutzan eta espezializazioan oinarritutako antolakuntza-ereduaren alde.
- (32) Gainera, uneotan, LEAko langileetako batzuek erretiroa hartuko dutenez, belaunaldi-errelebo garrantzitsua egongo da.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzak, [EKI plan integralaren](#) esparruan, ezagutza transmititzeko tresna bat jarri du martxan, aukera ematen duena langileen lana eta ezagutza biltegitutzeko, ondoren belaunaldi berriei helaraz dakien, modu antolatuan. Helburua da zerbitzu publikoak indartzea eta etorkizuneko administrazioa eraikitzea, erantzuna emateko EAEko enplegu publikoaren aro berriari.



- (33) LEA hainbat unitatez osatutako instituzio bat denez (gainbegiratzeko, erregulazioa aztertzeke eta instrukzioko unitateak), merkatuak behatzen ditugu oso ezberdinak baina osagarriak diren ikuspegietatik. Hala, lan egiten dugu zubiak indartzeko ezagutza eta esperientziak iragazkorak izan daitezkeen unitateen artean, arrakasta izan duten prozesuak arlo batetik bestera esportatuz edo arloekin batera berriak sortuz.
- (34) Helburu hori **4 jarduketatan** hedatzen da. Hurrengo orrietan deskribatuko ditugu jarduketaren zehaztasunak.

#### 4.1. JARDUKETA. AA tresnen erabilera integratzea LEAren kudeaketa-prozesuetan

- Ikerketa Zuzendaritzaren eremuan, [computational antitrust](#) integratzea EAEko merkatuetan aktibo dauden operadoreen jarreraren azterketan, behar bezala erantzuteko lehia algoritmikoaren fenomenoari —fenomeno hori sortu da sare-azpiegiturak hedatzearen eta bizitza ekonomikoko alderdi ia guztiak masiboki digitalizatzearen ondorioz—; zehazki, estrategia bat ezartzea tresna analitikoak eta metodo konputazionalak integratu daitezkeen lehiaren aurkako jokabideak antzemateko lanean.
- Idazkaritza Nagusiaren eremuan, tresnak garatzea prozesu errepikakorrek automatizatzeko eta balio erantsi txikiagoko atazak sinplifikatzeko.

#### 4.2. JARDUKETA. Ezagutzaren transmisioa

- Ezagutza modu antolatuan transmititzeko tresna ezartzea, LEAko langile bakoitzak tresna hori elikatu dezan, ahalbidetzeko lanpostu bakoitzera sartzen denak modu sistematizatuan jakin ahal duela zein diren gauzatu beharreko atazak, zein bere kolaboratzaile-sarea, eta zein lanpostua garatzeko beharrezkoa den informazioa.

#### 4.3. JARDUKETA. LEAko langileen prestakuntza


- LEAko langileei prestakuntza ematea LEAren lan espezifikoarekin lotutako gaietan nahiz zeharkako gaietan (berdintasuna, hizkuntza-normalizazioa, IKT sistemak eta adimen artifiziala, besteak beste).

#### 4.4. JARDUKETA. Bikaintasuna egiaztatzea kudeaketan


- Hastea [Bikain – Euskararen Kalitate Ziurtagiria](#) egiaztatzeke izapideak, egiaztatzeke eta aitortzeke zein normalizazio-maila duten euskararen erabilerak, presentziak eta kudeaketak LEAn.

### III. AURREKONTUA

(35) 2026ko ekitaldirako —aurreko ekitaldiaren jarraipena—, LEAri onartu zaion aurrekontua 2.215.000 €-koa da, eta, batez ere, langileen gastuetara (% 70,3) eta funtzionamendu-gastuetara (% 25,1) bideratzen da. Partiden zehaztasuna eranskinean jasotzen da.



21140 Lehiaren Euskal Agintaritza  
21140 Autoridad Vasca de la Competencia





## IV. AGINTE-TAULA

### Aginte-taula

- (36) Aginte-taula kudeaketa estrategikoko tresna bat da, aukera ematen duena modu argi eta egituratuan ikusarazteko LEAren adierazleak eta helburuak.

Eztabaidaezina da erabilgarria dela jarduketaren jarraipen etengabea egiteko, baita jomuga instituzionalen jarraipena egiteko ere.

Era berean, baliagarria da erabakiak hartzen hobetzeko, eta, gainera, gardentasuna sustatzen du, ikuspegi orokor eta integrala ematen baitu, neurtu egiten duelako LEAren jarduera bere helburu estrategiko eta operatiboekin lotuta.

Hori guzti hori dela eta, gure jardueraren gaineko aginte-taula bat diseinatzea planteatu dugu 2026ko ekitaldirako.

- (37) 2026ko aginte-etaulak jasotzen ditu beharrezkoak diren jarduera-adierazleak, ebaluatzeko zein neurritan bete diren planeko lerro estrategiko bakoitzean planifikatutako ekintzak —urteko jomuga edo helburu bat ezarrita dutenak—.
- (38) Hurrengo orrietan, 2026ko ekitaldirako adierazle-panela aurkezten da, zeinak modu sintetikoan jasotzen baititu ekintza-plan honen 2. kapituluaren definitutako helburuak.

### Planaren jarraipena egiteko dinamika

- (39) Kontuan hartuta *2024-2028 aldiko Plan Estrategikoan* jasotako gobernantza-eskema, adierazle-panela neurtuko da, zertarako eta:

- (1) Ebaluatzeko egin ote diren aurreikusitako ekintzak, adierazle-panela kontuan izanda.
- (2) Adosteko proposamen bat, plana betetzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren doikuntza-ekintza edota -neurri berriak jasotzen dituenak.
- (3) Proposamen hori LEKi helarazteko, planaren urteko ebaluazio-txostenaren zati gisa, onar dezan.

### Planaren jarraipena egiteko proposatutako adierazleak

1. Lehia sustatzea		2026ko helburua
1.1. Lehentasunezko sektoreei buruzko azterketak, ikerlanak eta txosten orokorrak egitea		
Azterketa kopurua		2
1.2. Sektore publikoaren jarduketari buruzko txostenak egitea		
Txosten kopurua		6
1.3. Laguntza publikoei buruzko txostenak egitea		
Txosten kopurua		2
1.4. Sektore publiko eta pribaturako gida praktikoak egitea		
Gida kopurua		2



1.5. Zabalkunde-jarduerak programatzea		
	Jarduera kopurua	4
1.6. Lankidetzaz unibertsitateekin		
	Lankidetzaz kopurua	4
1.7. Arauen jarraipena egitea, Eusko Jaurlaritzaz, foru-aldundiek eta udalek landutako araudia aurreikusitaz eta egokitzeko		
	Jarraipen-jarduketaz kopurua	5
1.8. Lehiaren aurkako arauak aurkaratzeko tresna erabiltzea interes orokorraren mesedetan		
	Aurkaratze kopurua	--
1.9. LEAren kontsulta-eginkizuna		
	Ekintza kopurua	10
1.10. Laguntzen deialdiak		
	Deialdi kopurua	3

2. Jarduera instituzionala eta gardentasuna		2026ko helburua
2.1. Harreman instituzionalak bultzatzea		
	Lankidetzaz-jarduketaz kopurua	8
2.2. Lankidetzaz eta koordinazioa Lehiagintaritzaren Sarean		
	Lankidetzaz-jarduketaz kopurua	6
2.3. Foro espezializatuetan parte hartzea		
	Partaidetzaz kopurua	3
2.4. Aurrera egitea gardentasunean eta irisgarritasunean		
	Jarduketa kopurua	5

3. Lehiagintatzea		2026ko helburua
3.1. Administrazio-prozedura zehatzaileak bultzatzea		
	Jarduketaz egin diren espediente kopurua	19
3.2. Bitarteko propioak indartzea lehiaren aurkako praktikak antzemateko		
	Jarduketa kopurua	4
3.3. Errukitasun-programa sustatzea		
	Jarduketa kopurua	3

4. Bikaintasun operatiboa lortzea		2026ko helburua
4.1. AA tresnen erabilera integratzea LEAren kudeaketa-prozesuetan		
	Tresna kopurua	2
4.2. Ezagutzaren transmisioa		
	Tresna elikatzen duten langileen kopurua	2
4.3. LEAko langileen prestakuntza		
	Prestakuntzako ordu kopurua	250
4.4. Bikaintasuna egiaztatzea kudeaketan		
	Ziurtagiri kopurua	1



## ERANSKINA. AURREKONTU XEHAKATUA

Hurrengo orrietan, LEAren aurrekontua jasotzen da. LEA Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organismo autonomoa denez, bere aurrekontua integratu egiten da *Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan* ([abenduaren 23ko 7/2025 Legearen](#) bidez onartutakoak).



**LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA**  
**AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA**

Instituzioaren eta programaren memoria  
*Memoria de la Institución y del Programa*

Gastuen egoera-orria  
*El Estado de Gastos*

Sarrerren egoera-orria  
*El Estado de Ingresos*

Gastuen laburpenak  
*Resúmenes de Gastos*

Sarrerren laburpenak  
*Resúmenes de Ingresos*



## 1. SARRERA.

Otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) sortu zen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa. Eusko Jaurlaritzan politika ekonomikoan eta lehiaren defentsan eskumena duen sailari atxikita, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan jarduteko independentzia organiko eta funtzionala daukana.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburua da, izan ere, merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Jarduera ekonomikoa lehia askeko baldintzetan garatzeak aberastasuna areagotzea, enpleguaren sorrera sustatzea eta berrikuntza indartzea dakartza. Horrez gain, produktuen eta zerbitzuen eskaintzaren baldintza ekonomikoak eta kalitate baldintzak hobetzen laguntzen du. Guzti horrek, euskal ekonomiaren lehiakortasunari dagokionez, abantailak dakartza.

Izan ere, enpresen ikuspuntutik, justifikatuta ez dauden sarrera-barrerak gutxitzen laguntzen du, eta murrizketak kentzen ditu, efizientziaren mesedetan.

Kontsumitzaileen ikuspuntutik, berriz, hautaketa-aukerak areagotzen ditu, prezioak gutxitzea eta kalitatea hobetzea bultzatzen du, eta produktuak eskuratzeko baldintzak ugaritzen ditu.

LEAren jarduerari esker lortutako onura guzti horiek nazioarteko erakundeek babesturik daude (hala nola Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak eta Europako Batzordeak). LEA/AVCk erakunde horiekin lankidetzan dihardu, sinergiak bilatuz eta helburuak partekatuz.

Bere helburuak betetzeko, LEA/AVCk bere eskumen guztiak gauzatzen ditu: sustatzekoak, aurkatzekoak, irizpenak egitekoak, eta aholkua zein arbitrajea ematekoak.

## 2. BURUTUTAKO JARDUERA NAGUSIAK 2025EAN.

I. Lehia sustatzea:

## 1. INTRODUCCIÓN.

Mediante Ley 1/2012, de 2 de febrero, se crea la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC) como organismo autónomo, de carácter administrativo, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política económica y defensa de la competencia, que desarrolla su actividad con independencia orgánica y funcional en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Autoridad Vasca de la Competencia tiene como finalidad promover, garantizar y mejorar las condiciones de libre competencia y transparencia en el mercado, respecto de las actividades económicas que se ejerzan en el ámbito territorial del País Vasco.

Garantizar que la actividad económica se lleve a cabo en condiciones de libre competencia genera un incremento de la riqueza, estimula la creación de empleo, potencia la innovación y contribuye a la mejora de las condiciones, tanto económicas como de calidad, de la oferta de productos y servicios. Todo ello se traduce en ventajas respecto de la competitividad de la economía vasca.

Desde la perspectiva de las empresas, favorece la reducción de las barreras de entrada que no estén justificadas y elimina restricciones favoreciendo la eficiencia.

Desde la perspectiva de las consumidoras y los consumidores, incrementa las posibilidades de elección, presiona la baja de los precios, favorece la calidad y multiplica las condiciones de acceso a los productos.

Estos beneficios obtenidos gracias a la actividad de la AVC se ven avalados por las instituciones internacionales (Conferencia de las Naciones Unidas para el Comercio y el Desarrollo, OCDE, Comisión Europea, entre otras). LEA/AVC colabora con estas entidades buscando sinergias y compartiendo objetivos.

Para el cumplimiento de sus fines, LEA/AVC ejerce tanto competencias sancionadoras como de promoción; impugnación; dictamen; consulta y arbitraje.

## 2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE EL 2025.

I. Promoción de la competencia:

LEA/AVC-ren arbitrajearen, antolaketa eta funtzionamenduaren erreglamendua onartu da. Sektore publikoari buruzko txostenak eta lehiaren aldeko proposamenak eta gomendioak egin dira.

Horrez gain, LEA/AVCk bere organo aholku-emaile izaera bultzatzen jarraitu du lehiaren defentsaren inguruko kontuetan, EAEko esparruan eta euskal erakundeekin.

Era berean, hainbat erakunde publikorekin sinatutako hitzarmenei eutsi zaie, hitzarmen berri bat sinatu da CESrekin, eta, gainera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren eta Lehiaren Agintarien Sarearen lan-taldeetan parte hartu da.

Beste alde batetik, herritarrek eta lehiaren alorreko beste agente batzuek lehiari buruz egiten dituzten galderei erantzun dizkiegu, gizartearekin ezarritako komunikazio- eta interakzio-bideen bitartez. Lehiaren arloko informazio-kanal anonimoa martxan jarri da, ustezko arau-hausteari buruzko informazioa baino ez du jasoko, informatzailearen identitatea uneoro babestuz.

Lehiaren arloko Compliance programak finantzatzeko dirulaguntzen lehen deialdia egin da.

LEA/AVCk 2025ean garatutako lehiari buruzko prestakuntzak hainbat eremutako 200 pertsona baino gehiago hartu zituen: batxilergoko, unibertsitateko edo masterreko ikasleak, administrazio publikoetako kontratazio publikoan adituak diren langileak, zuzenbideko profesionalak eta beste herrialde batzuetako lehia-agintarizetako langileak (Alemania, Belgika, Hungaria, etab.).

## II. Lehia defendatzea:

Lehiaren aurkako jokabideei buruzko espedienteak ikertu, hasi eta ebaztea, bame hartzen du: kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko posizioaren abusua eta lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea. Eskumen hori zigor-espedienteen instrukzio eta ebazpenen bidez eta ikuskatze ekintzen bitartez garatzen du. Era berean, Itundutako amaiera izan dezakete.

Lehia Defendatzeko Legearen arabera, zehapen-espedienteak ofizioz hasten dira beti, hirugarrenen salaketaren bidez edo norberaren ekimenez. Ildo horretan, LEA/AVCk herritarren eskura dauden salaketa-tresnen erabilera sustatzen jarraitu du, baita lehiaren arloko arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko komunikazioen kanpoko kanala ere. Eraberean, LEA/AVC beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu da, bai eta kontratazio-organoa eta -mahaiekin ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako tresnei dagokienez, eta lizitazio publikoen esparruan kolusiozko praktiken zantzurik izanez gero, prebenitu eta jardun egingo du.

## III. Optimizazioa kudeaketan:

Se ha aprobado el reglamento de arbitraje, organización y funcionamiento de LEA/AVC. Se han realizado informes sobre el sector público, así como propuestas y recomendaciones en pro de la competencia.

Además, LEA/AVC ha seguido potenciando su carácter de órgano consultivo sobre cuestiones de defensa de la competencia en el ámbito de la CAE con las instituciones vascas.

Así mismo, se han mantenido los convenios suscritos con distintas instituciones públicas, se ha suscrito un nuevo convenio con el CES y se ha participado en los grupos de trabajo de la Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia y en la Red de Autoridades de Competencia.

Por otra parte, se han atendido directamente las consultas de la ciudadanía y otros agentes en materia de competencia, a través de los diferentes cauces de comunicación e interacción con la sociedad. Se ha puesto en marcha el canal anónimo de información, el cual sólo recoge información sobre la presunta infracción, protegiendo la identidad de la persona informante en todo caso.

Se ha llevado a cabo la primera convocatoria de subvenciones para la financiación de programas de Compliance en materia de competencia.

La formación en competencia desarrollada por LEA/AVC durante 2025 tuvo alcance a más de en 200 personas de diferentes ámbitos: estudiantes tanto de bachiller como universitarios o de máster, personal experto en contratación pública de administraciones públicas, profesionales del derecho, así como personal de autoridades de competencia de otros países (Alemania, Bélgica, Hungría, etc.).

## II. Defensa de la competencia:

Comprende la investigación, incoación y resolución de expedientes relativos a conductas contrarias a la competencia: conductas colusorias, abuso de posición dominante y falseamiento de la libre competencia por actos desleales. Esta competencia se lleva a cabo mediante la instrucción y resolución de expedientes sancionadores y las acciones de vigilancia, pudiendo así mismo derivar en una terminación convencional.

De acuerdo a la Ley de Defensa de la Competencia, los expedientes sancionadores se inician siempre de oficio, ya sea a través de denuncia de terceros o a iniciativa propia. En ese sentido LEA/AVC ha seguido promoviendo el uso de herramientas de denuncia a disposición de la ciudadanía, así como el canal externo de comunicaciones sobre infracciones de competencia y protección de las personas informantes. Así mismo, LEA/AVC, ha colaborado con otros organismos, así como con órganos y mesas de contratación, en relación a las herramientas previstas en la Ley de Contratos del Sector Público para prevenir y actuar en caso de indicios de prácticas colusorias en el marco de licitaciones públicas.

## III. Optimización en gestión:

Kudeaketa-tresnak hobetzeko lan egin da, bai erakunde hau sortu zuen Legeak ezarri zituen helburuak betetzearren, bai handik aurrera argitaratu den legeriak, zuzenean edo zeharka, eman dizkion eskumenak betetzearren.

III.1. Era berean, Planean definitutako ekintzak gauzatu dira, 2024-2028 plan estrategikoarekin bat etorritz.

III.2. LEAk unibertsitateekin lankidetzan aritu da lehiaren alorrean.

Euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan, LEA/AVCk bere plan estrategikoa onartu du: LEA/AVCren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa (2023-2027).

### **3. HELBURU OROKORRAK 2026. URTERAKO.**

Lehiaren sustapenari dagokionez: a) Euskadiko sektore ekonomiko garrantzitsuei buruzko azterlanak egingo dira, b) Euskadiko erregulazioaren hobekuntzari buruzko azterlanari jarraipena egingo zaio, c) kontratazio publikoari dagokionez, garrantzi berezirikotza jotzen da erosketa publikoan eta, oro har, kontratazio publikoan inplikaturako eragileekiko harremana sendotzen jarraitzea; d) Euskadiko laguntza publikoei buruzko txostena egingo da, e) Euskadin eragin esanguratsua duten kontzentrazio ekonomikoko eragiketei buruzko azterketari jarraipena emango zaio, f) ikastaroak antolatuko dira edo ikastaroetara joango dira, eta Unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan arituko dira.

EAEko merkatuetako lehiaren defentsari dagokionez: a) lehiaren aurkako praktikak detektatzeko bitarteko propioak indartuko ditu, bereziki kartelak, jokabide larriak direlako, b) kontratazio publikoan kolusiozko praktikak aztertuko ditu, merkatua banatuz, ABEEak eratuz edo prezioei buruzko akordioak eginez; c) kolektibo behartsuei bereziki eragiten dieten merkatuetan edo sektore sentikorretan sakonduko du.

Bikaintasun operatiboa lortzeko: a) langileei prestakuntza- eta ikaskuntza-aukerak eskainiko zaizkie eta datuen analisis adituak diren giza baliabide berriak sartzen saiatuko dira, adimen artifiziala aplikatzeko ezagutzekin. b) eraldaketa digitaletako proiektuak ezartzeko ahalgina egingo da eta c) kudeaketa publiko aurreratuko prozesuen ezarpena egiaztatze eta ziurtatzeko bideak aztertuko dira.

LEA/AVCk EAEko erakundeen arteko harremanak hobetzen lan egingo du, lehiaren agintaritza autonomikoen sarea sendotzen eta MLBNrekiko harremanetan; nazio eta nazioarte mailako kongresu eta foroetan parte hartuko du; Lehiaren Defentsari buruzko Lege berriaren eta beste koordinazio-mekanismo batzuen inguruan lan egingo du, eta informazioaren gardentasunean eta irisgarritasunean aurrera egingo du.

Se ha trabajado en la mejora en las herramientas de gestión a fin de dar debido cumplimiento tanto a los fines que la Ley de creación del organismo en su día contemplara, como a las competencias que diversa normativa, desde entonces publicada, han ido atribuyendo, directa o indirectamente, al organismo autónomo.

III.1. Asimismo, se han llevado a cabo las acciones definidas en el Plan de Acción 2025 alineado con el plan estratégico 2024-2028.

III.2. También se ha colaborado con las Universidades en materia de competencia.

En el proceso de normalización del uso del euskera, LEA/AVC ha aprobado su propio plan estratégico: Plan Estratégico de normalización del uso del Euskera de LEA/AVC (2023-2027).

### **3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL 2026.**

Respecto a la promoción de la competencia: a) se realizarán estudios sobre sectores económicos relevantes en Euskadi, b) se dará seguimiento al Estudio sobre la Mejora de la Regulación en Euskadi, c) en cuanto a la contratación pública, se considera de especial interés continuar en la consolidación de la relación con los agentes implicados en la compra pública y la contratación pública en general; d) se elaborará el informe sobre ayudas públicas en Euskadi, e) se dará continuidad al estudio sobre las operaciones de concentración económica que tengan una afección significativa en Euskadi, f) se organizarán o se asistirá a cursos y se colaborará con laS Universidades y otras entidades.

En cuanto a la defensa de la competencia en los mercados de la CAE: a) reforzará los medios propios para la detección de prácticas anticompetitivas, especialmente cárteles por ser las conductas más graves, b) analizará prácticas colusorias en la contratación pública mediante reparto de mercado, constitución de UTE, o acuerdos de precios, c) profundizará en mercados o sectores sensibles que tengan una especial afección a colectivos desfavorecidos.

Para lograr la excelencia operativa: a) se ofrecerán oportunidades de formación y aprendizaje al personal y se tratará de incorporar nuevos recursos humanos expertos en análisis de datos, con conocimientos para aplicar inteligencia artificial, b) se procurará implantar proyectos de transformación digital, y c) se explorarán posibles vías de acreditación y certificación de la implantación de procesos de gestión pública avanzada.

LEA/AVC trabajará en la mejora de las relaciones institucionales en el ámbito de la CAE, en la consolidación de la red de autoridades autonómicas de competencia y en su relación con la CNMC, tomará parte en congresos y foros a nivel nacional e internacional, trabajará a nivel institucional en relación a la nueva Ley de Defensa de la Competencia y otros mecanismos de coordinación, y avanzará en la transparencia y accesibilidad de la información.

## PROGRAMA

6115 LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA

## PROGRAMA

6115 AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA

## ARDURADUNA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA  
LEHENDAKARIA

## RESPONSABLE

AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA  
PRESIDENTA**MEMORIA**

Lehiaren Defentsa Euskal Autonomia Erkidegoan, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko, 1/2012 legearekin bat etorritik.

Agiri honek erakunde Autonomoaren Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 6115 programari dagokion zatia jasotzen du.

Defensa de la Competencia en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 1/2012, de 2 de febrero, de la Autoridad Vasca de la Competencia.

Este documento recoge la parte correspondiente al programa 6115 Autoridad Vasca de la Competencia del Organismo Autónomo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
